

URTEKARIA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

2022

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS



Eros ezazu **Edurne Salaberria irudigileak** OARSO BIDASOKO HITZArentzat **diseinatutako 2023ko pareta egutegia.**

Berriz ere esnatzen

Salmenta prezioa: **9 €** (Hitzakideek)
12€ (Gainontzekoek)

ESKAERA EGITEKO MODUAK:

- Bulegoko telefonora deituta: 943340330
- Posta elektronikoa bidez: dendaobh@hitza.eus
- Whatsapp bidez eskatuta: 688 77 07 52

ORDAINTZEKO MODUAK:

- Eskudirutan, bulegoan
- Transferentzia bidez (*faktura egiteko datuak: Izen abizenak, NAN, helbidea eta telefonoa)
- Errezibo bidez

PRODUKTUA ESKURATZEKO MODUAK

- Etxean jasotzeko. Bidalketa gastuak: 2€
- Bulegoan jasotzeko (Irun kalea 8, Erretereria-Orereta, 20100). Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 17:30era.





HITZA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Sustapen arduraduna:

Beñat Trigo Perez.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:
Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.
Telefonoa:

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Webguneak:
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
oarsobidasoa.hitza.eus
Publizitatea.

Egoi Carrizo Uranga.

Telefonoa:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
943 30 43 46
harpidetza@hitza.eus
oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus

Kalearen taupada entzuteko urtea

2022an kaleak berreskuratu dituzte herritarrek. Aurretik zetozen gaiak, ordea, ez dira lausotu: migranteen drama ez da itzali, eta COVID-19aren kontrako neurriak ez dira osoki ezabatu. Euskara kalean izan da, Korrikarekin eta Euskaraldiarekin batez ere. Osasun sistemaren gaineko kezka areagotu egin da.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Kaleak, plazak, parkeak berreskuratzeko urtea izan da 2022a. Izurriaren ondorenean izatearen sentazioa zeharo nabarmendu da, pandemiagatik murriztu edo ezabatu ziren harreman sozialak, ustezko normaltasunean garatu direlako: festak, kaleko ekitaldi jendetsuak, kultur ekitaldiak...

Kaleetan ere izan dira migranteak 2022an, Irunen. Ez da gelditu haien emaria, nahiz eta 2021koaren adinakoa ez izan: Bidasoa ibai gaineko polizien kontroletatik ihesi, bi pertsona hil dira uretan itota.

Euskara ere kaleetara aterata da. 22. Korrikak eta hirugarren Euskaraldiak hizkuntzaren erabileraren gaineko aldarri eta gogoeta emozionala egiteko aukera eman die herritarrei. Horrek, ordea, ez du erabileran eragin nahikorik izan: udalerrietan egin diren kaleko euskararen erabileraren gaineko datuak ez dira oso baikorrak, oro har.

Karrikak bere egin dituzte, aldi berean, bai Bidasoan zein Oarsoaldean, murrizketarik gabekoa osasun sistema publiko duin eta osoa eskatzen dutenak. ✕



Bidea itxita, eta Bidasoan hildakoak

Migranteen gaian ez da apenas aurrerapenik izan 2022an. Desesperazioak jota, Bidasoa ibaia zeharkatzeko ahaleginean bi pertsona hil dira, eta beste bat desagertu. Herri mugimenduak ozen salatu ditu Gipuzkoa eta Lapurdi artean dauden kontrol arrazistak.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Ibrahim Diallo 2022ko martxoaren 12an hil zen, Bidasoa ibaian itota; Abdourraman Bah-k ekainaren 18an galdu zuen bizia, hura ere Bidasoan itota. Apirilaren 18an, berriz, migrante bat ibaia gurutzatzen zela desagertu egin zela salatu zuten, ez zen haren gorpurik inon agertu. Bi hildako eta desagertu bat. Horiek pertsonak mugak aske gurutzatzeko debekuak 2022an ekarri dituen datu hotzak.

«Irunera iritsita inork ez du espero igaro ezin daitekeen muga bat topatzerik», esan zion HITZA-ri, ekainean, Josune Mendigutxia Irungo Harrera Sareko kideak. Bada hala da, muga azalez zuriak ez diren pertsonentzat itxita dago, eta

Azaroaren 1ean Etorbidea zubiko hesiak kendu zituzten. Pertsonen zirkulazio askatasuna eskatzeko ekintza izan zen.

Alaine Aranburu Etxegoien

ondorio lazgarriak izan ditu, izaten ari da, eta konpondu ezean izaten jarraituko du horrek. Poliziaren kontrolek oraindik ere jarraitzen dute Gipuzkoa eta Lapurdi arteko pasabidean. Hildakoak izan direnean, erantzun azkarra eman dute herri-tarrek hainbat mobilizazio eginez. Erakundeetako ordezkariak ere samin hitzak zabaldu dituzte, eta ideia bat nabarmendu: pertsonen kontrolerako muga horiek ezabatu behar direla. Eskera horiek, ordea, ez dute erantzunik izan, batez ere Frantziako Gobernuari dagokionez.

2022an bidean diren migranteen fluxuak jarraitu du. Ehunka izan dira joan den urtean ere Irunera iritsi diren pertsonak, euren herrialdeetako pobrezia-tik, gerretatik edo bizi baldintza muturrekoetatik ihesi. Europarako bidean, ordea, tapoia topatu dute Irunen. Iratzkaitza den muga izan dute aurrez aurre, eta horrek, desesperaziora eraman ditu asko, Bidasoa ibaia gurutzatzeko erabakia hartzeraino.

Hildakoak geroz eta handiagoa den joera baten ondorio larriena besterik ez dira, ehunka izan baitaitezke Bidasoa ibaia onik pasa dutenak. Baina migranteek gurean jasaten duten egoeraren la-

rritasuna ez da bakarrik azken erabaki hori hartzen dutenetara mugatzen, hirian bertan egonda ere, ez aurrera ez atzera egin ezinik, egoera larriak bizi dituztelako bidean diren pertsonak.

Larritasun horri aurre egiteko lanean jarraitu du Irungo Harrera Sareak (IHS). Lau urte bete zituen 2022ko urriaren 10ean zeregin horretan. Azaldu dute, joan den urtean ez direla 2021an adina pertsona iritsi Irunera, baina hala ere, horien emaria handia dela. Baina Irunera iritsi aurreko bidean ere izan dira aldeak: «Lehen Mediterraneoetik edo Ceuta, Melilla edo Tarajaletik etortzen ziren. Hori guztia itxi egin zuten. Kanarietatik datoz orain gehienak penintsulara, eta beraz, Irunera».

Harrera duin eta integrala

IHSk hirira iristen direnei informazioa ematen die, beharko balute arropa eskaintzen die, edo bestelako baliabideak errazten dizkie. Lo egiteko tokia, berriz, Eusko Jaurlaritzak egokitutako eta Gurutze Gorriak kudeatzen duen Hilanderaseko zentroan dute, baina muga askorekin. «Instituzioen hedabideetako diskurtsoa da harrera ematen dietela migrante guztiei, eta hori ez da egia», salatu dute IHSkoek. Alegia, ez dakite ziur ez Irungo Harrera Sareko kideek ez eta bidean diren migranteek zer egin behar duten, edo zein baldintza bete behar dituzten duin lo egiteko.

Horren harira, Hilanderas ondoan migranteei harrera emateko beste gune bat zabaldu zuten martxoan, eta besteak beste Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartu zuen inaugurazioan.

Herri mugimenduek, bestalde, hainbat mobilizazio egin dituzte, hildakoak izan direnean egin diren elkarretaratze-etatik aparte. Horietatik esanguratsuena azaroaren 1ekoa izan zen: Etorbidea zubiko hesiak kendu zituen herritar talde batek, «hiztatetik ekintzetara» pasa zirela adierazi zuten ordukoan: «Zubi hau ireki dugu. Lortu dugu. Gehiengo batek eskatzen duena egin dugu. Hemen gauden erakunde eta elkarte guztiak elkarrekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Muga ireki, zirkulazio askatasuna guztiontzat». X



Ondoko bi irudiak 2022ko apirilaren 9 eta 10ekoak dira. Lehen Korrika Irunen izan zenekoa da, horren azpikoa Pasaiatik igaro zenekoa. AEK

Ezagutza eta erabilera aurrez aurre

2022an Korrikak eta Euskaraldiak sentimendua eta zentzua eman diote euskararen erabilerari. Datuek diote, oro har, kalean hizkuntzaren erabilerak behera egin duela, gazteen artean batik bat.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Kaleak berreskuratzeko urtea izan da 2022a, esaldi horren zentzurik zabalenean. Pandemiaren iluntasunetik atera, eta euskararen eta euskaltzaleen indarraren berri emateko hainbat izan dira herriz herri egin direnak. Baina horien artean nazioko bi gailendu dira: 22. Korrika eta hirugarren Euskaraldia.

Edonola ere, sentimenduz beteriko ekitaldi horietatik gaindi euskararen erabileraren gaineko kezka piztu duten datuak jaso dituzte herrietan. Soziolinguistikak Klusterrak 2021ko udazkenean egindako kale erabileraren gaineko datuak eman ditu herriz herri 2022an zehar (Irunen ez da datu berririk), eta horien arabera, herrietako joera orokorra da

euskararen kale erabilerak beherantz egin duela, gazteen artean batik bat. Hain justu, hizkuntzaren ezagutza alde-rik haur eta gazteak dira tasarik altuena dutenak; erabileran dago arrakala.

Apirilaren 9ko gauean eta 10eko goizaldean iritsi zen Korrika lehenik Bidasora, ondoren Oarsoaldera. Aurretik, ordea, tokian tokiko batzordeek antolatutakoak hainbat izan ziren, tartean izan zirelarik kultur ekitaldiak, edo Korrika nagusiaren bezperatan egin ziren Korrika Txikiak. Euskararen eta AEK euskaltegien aldeko lasterketa erraldoia egiten den aldiro uzten duen energia indarberritzea aski asko nabaritu zen herrietan, emozio uholdea izan zen, errepideetan adin guztietako euskaltzaleek esan zuten baietz, merezi duela hizkuntzak, eta horren normalizazioaren aldeko jardunak.

Hirugarren Euskaraldia, berriz, azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte egin zen. Bi eskualdeetan ere ehunka izan ziren bitarte horretan Ahobizi edo Belarri-

prest txapak jarri zituztenak, euskararen erabilera bultzatzeko ariketa kolektiboarekin bat egin zutenak, alegia. Balorazio sakonagoen zain, txapak ikusi eta ondorioz hiztunak bai aktibatu zirela, baina agian ez aurreko edizioetan bezainbeste.

Erabilera datuak

Soziolingusitika Klusterrak 2021eko udazkenean egindako kale neurketetan jasotakoaren arabera, Pasaian kenduta, Hondarribian, Errenteria-Oreteran, Le-

Euskararen ezagutza inoizko handiena da, baina ez, ordea, erabilera

zon eta Oiartzunen euskararen kaleko erabilera jaitsi egin da. Beherakada nabarmenenak, 2016ko datuekin alderatuz, Hondarribikoa (zortzi puntu jaitsi da) eta Oiartzungoa (bost puntu) izan dira; azken herri horretan erabilerak oso handia izaten jarraitzen du, ordea: kale-

an izaten diren elkarrizketen erdia baino gehiago dira euskaraz. Pasaian, aldiz, ia bost puntu hazi da kaleko erabilera 2016an bildutako zifrekin alderaketa egiten bada. Errenteria-Oreteran eta Lezon ere jaitsierak izan dira, bi puntu ingurukoak.

Gazteen (15-24 adin tartea) erabilerak kezka eragin du, ordea. Haien euskararen ezagutza %75 eta %95aren tartean dago, herriaren arabera. Baina erabilera ez dator bat ezagutzarekin, eta are gehiago, Pasaian kenduta, beste herrietan jaitsi egin delako erabilera indizea.

Horren atzean izan daitezkeen faktoreak askotarikoak izan daitezke, baina adituek azalera ateratu dituztenen artean, gazteen erreferente euskaldun falta, sare sozialetan eta aisia esparruan hizkuntzaren presentzia urria (herriaren arabera da hori), eta horrekin batera bizi-modu ohitura aldaketak daude. Euskaraz bizitzeko espazioak behar dituzte euskaldunek, eta berebiziko garrantzia du horrek gazteen artean. ✕





Urte hasieran egindako manifestazio baten irudia da goikoa. Urko Etxebeste

Eskualdeko osasunarekin kezkatu, kalean izan dira

Urtea hasi zenetik hainbat mobilizazio egin ditu Osasun Bidasoa plataformak. Bidasoko Ospitaleak jasango dituen murrizketak salatu eta lanek irauten duten bitartean eskualdeko herritarren osasun beharrei erantzuteko exijitzen ibili dira, tinko, gaur arte.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

2022a, 2021 bezala bukatu bezalaxe hasi zuten Bidasoa eskualdeko herritarrek, borrokan. 2021eko abenduan sortutako Osasun Bidasoa plataformak hainbat mobilizazio egin zituen urte hasieran, «egoerarekin nazkatuta» zeudela aldarrikatzeko.

2021 bukaeran sortu zuten plataformak, Bidasoa ospitaleak eskaintako zerbitzu sortan aldaketak iragarri baitzuten Osakidetza. Zehazki, ebakuntza gelak eta erreanimazio unitateak hemezortzi hilabetez ixteko erabakia hartu zuten Osasun Sailak, jarduera Donostia

Ospitalera eta Onkologikora lekualdatuz. Erabaki horrek hautsak harrotu zituen bailaran, Bidasoko osasun langileek kezka agertu zuten itxierak eragingo zituen ondorioekin, eta mobilizatzeko beharra ikusi zuten.

Elkarretaratzeak, manifestazioak... Tinko eutsi diote borrokari eskualdeko herritarrek. Aldarrikapena, honakoa: «Bidasoko ospitalean kalitatezko arreta kirurgikoa berma dadila, gaur egungo osasun beharrei erantzuteko premiazkoak diren ebakuntza gela zabalagoak eta modernoagoak eraikitzen diren bitartean». Horri lotuta, bertako langileen lan eskubideak errespetatzea ere aldarrikatzen aritu dira.

Bada, ordutik egoerak berdin jarraitzen duela salatzen jarraitzen du Osasun Bidasoak, eskualdeko osasun egoerarekin kezkatuta jarraitzen dute. Izan ere, azken hilabete hauetan «arazo eta gabezi asko» identifikatu dituzte herritarrek. Bidasoa ESiko bigarren solairuan kokatuta dauden ebakuntza geletan obrak egiteko proposamenak kezka sortu du, «irtenbide egokiago eta agian merkeagoak» bilatzeko eskatu dute zentzu horretan, «onura handiagoak» ekarriko dituenak.

Bestetik, Irungo erdialdeko eta Dunboako anbulatorioetako eraikinak kolapsatuta daudela salatu zuten beste behin. Espazio gabeziari erantzuteko barrakoi batzuk ezarri izana «onartezina» dela uste dute, «ez osasunaren ikuspegitik ezta kalitatearen ikuspegitik ere».

Bi arazo horiei «lehen eta bigarren mailako profesionalen gabezia» gehitu behar zaiola uste du plataformak. «Egoera horrek diagnostiko atzerapenak ekar ditzake, pronostikoa eta tratamendua baldintzatuz». Hirugarren anbulatorio bat exijitu dute, eta kezka eta gabeziei erantzuteko eskaera egin dute, enegarronez. ✕



HITZA

Pandemiagatik, protesta herriz herri aurten

OARSO BIDASOA. Bilbon ezin, baina herrietan bai. 2022an ezin izan zuten Sareren urtarrileko manifestaziorik egin, pandemiagatik. Halere, Euskal Herriko herri eta hirietan egin zituzten mobilizazioak, urtarrilaren 8an. Oarsoaldea zein Bidasoko udalerrietan, zientoka izan ziren euskal presoek eskubideen aldeko protestetara batu ziren herritarrak, hori bai, neurri zorrotzak beteta.

Sareren arabera, «inoiz baino beharrezkoagoa» izan zen aldarrikapena bizirik mantentzea, eta Euskal Herriko herri guztietako kaleak betetzea bidea egiten jarraitzeko: «Bizikidetzarako bidea, bake-rako bidea, etxerako bidea».

Urtarrileko data «ikur bat» dela erantsi zuten Sarekoek, horregatik herriz herri izan bazen ere, beharrezkoa ikusi zuten aldarrikapen egun horri eustea. Eta bereziki, pandemiak euskal presoengan eta haien senideengan eragindako zailtasunak salatzeke premia ikusi zuten urte hasieran.



Erik Gartzia

AZKENA IZAN DADILA EXIJITU DUTE

ERRETERIA-ORERETA

Urte hasieran Jon Rodriguez Irazusta txirrindulari erreteriarra harrapatu zuen motordun ibilgailu batek Gaintxurizketako errepidean, eta bertan hil zen. Heriotza horrek oihartzun handia izan zuen, eta eskualdeko txirrindulari askok bat egin zuen haren heriotza salatu eta «azkena izan dadila» exijitzeko egindako mobilizazioarekin. Txirrindulari martxa egin zuten ehunka lagunek, aldarrikapenez bete zituzten bi eskualdeetako errepideak.

Lakaxita, lapurretekin nazkatuta

IRUN. Urtarrila hasieran hainbat lapurreta jasan zituztela salatu zuen Irungo Lakaxita gaztetxeak. Zehazki, hil horren 22, 23 eta 24ko gauean egin zituzten lapurretan. Azken horrekin, guztira, sei lapurreta jasan zituen 2022an gunee autogestionatuak.

Lakaxitaren arabera, hainbat neurri hartu zituzten arren lapurretak ekiditeko,

lapurrek barrura sartu ahal izan zuten material, gailu eta dirua eramanez. «Azken lapurretekin gure pazientziak gainezka egin du», adierazi zuten Lakaxitatik. Pandemiak zuzenean eragin ziela gogorazi zuten.

Egoera horren aurrean, herritarrei laguntza eta auzolana eskatu zieten, eta itsulapikoak jarri zituzten herriko zenbait tokitan dirua berreskuratzeko. Materiala eskatzen ere hasi ziren. Herritarren laguntza ezinbestekotzat jo zuten.

JARRAI DEZAGUN
URTEKO HISTORIA
ETA ISTORIOAK
ELKARREKIN IDAZTEN



www.orereetaikastola.eus



Irungo Euskal Inauterietan jasotako irudia da goikoa. I.S.



Errenteria-Oreretan ere arrakastaz ospatu dituzte 2022ko inauteriak. I. S.

MUSUKOAREKIN IZAN BADA ERE, IRRIBARREAK GAIENDU DIRA INAUTERIETAN

IMANOL SAIZ

Pandemiaren itzal luzea atzean utzita, Inauteriak izan ziren kaleak berreskuratzeke lehen ekitaldi nagusia 2022an. Azken urteetakoa baldintzatu bazuen ere, ohiko ekintza eta ekitaldiak itzuli ziren bi eskualdeetara. Hori bai, ezin izan ziren normaltasun osoz ospatu, segurtasun distantzia bermatzen ez zenean, musukoa jartzeko derrigorrak be-

re horretan jarraitu zuelako. Halere, irribarreak izan ziren nagusi musuko horien atzean, Inauteri koloretsu eta jendetsuak izan ziren 2022an Oarsoaldean eta Bidasoan.

Inude eta Artzainak, kaldereroak, Ihoteak, ohiko mozzorro desfileak... Hutsunea luzea izan zela erakutsi zuten bi eskualdeetan egindako ekitaldi jendetsuek, gogotsu ziren herritarrak. Festa nagusi izan zen herri guztietan.



Bateleren ontzirik ez uretan 2022an

PASAIA. 2022an ez da *Batelerak* ontzia uretaratu. San Juan-Koxtapeko Kudeaketa Batzordeak otsailean eman zuen aditzera *Batelerak* ontzia ezingo zutela uretaratu 2022ko arraun denboraldian, taldea «gutxieneko berme batzuekin» osatu ezinagatik.

Ligak eskatzen duen etxeko arraunlarien kupoa bete ezin zutela adierazi zuten arduradunek, eta beraz, batelerak ez ziren lehiatu. Hurrengo denboraldira begira jarrita ziren, egoera errepikatzea saihesteko: «Gogoz hasi gara lanean traineru arrosa lehenbailehen uretan ikusteko», adierazi du klubak.

Oteiza eta Basterretxea Tailer Etxe berria

IRUN. Oteiza eta Basterretxea Tailer Etxeari «balioa eman eta nabarmentzeko» asmoz, itxura berria eman diote Ficoba (Iparralde hiribidean) inguruan aurki daitekeen eraikin mitikoari. Otsailean abiatu zituen udalak «eraikina zaintzeko, haren irudia hobetzeko eta gehiago honda ez dadin prebenitzeko» lanak. Hiru hilabetez luzatu zituzten obrak.

Lan horiei lotuta, udalak asmoa du bi artisten garai bateko tailer hori egokitzeko, eta «abangoardia artistikoekin lotura izan zezakeen kultura zentro gisa egokitzeko». Jada zenbait tailer eman dituzte bertan. Mugarte izena jarri diote proiektuari, «arte, kultura eta muga sustatzeko eta artxibatzeko lana» egin nahi baitute, «eta arte garaikidea sortzeko eta zabaltzeko espazio bat bilakatu».



Velascoko etxebizitzek badituzte jabeak

PASAIA. Otsailean egin zen, Donibaneko Juanba Berasategi aretoan, Velascoko babes ofizialeko 39 etxebizitzaren zozketa. Hainbat eta hainbat pasaitar hurbildu ziren esleipen ekitaldira.

Sustapena osatzen duten 39 etxebizitzetatik hamahiru hiru logelakoak dira, eta gainerako 26ek bi logela dituzte. Azken horietatik hemeretzi, 1986. urtean edo geroago jaiotako gazteentzat erreserbatu ziren. Era berean, hiru logelako bi etxebizitza erreserbatu ziren mugikortasun murriztua duten lagunentzat, eta gainerako 11 etxebizitzak familia eskatzaileen artean zozkatu ziren.

Zozketatik ateratako behin-behineko zerrendak dagoeneko kontsulta daitezke, oarsoaldea.hitza.eus webgunean. Udalak oraindik ez du jakinarazi noiz hasiko diren eraikina egiten.

Lezoko uren %100, Añarberen esku

LEZO. Añarbeko Uren Mankomunitateak kudeatzen du dagoeneko Lezoko uren %100a. Otsailean egindako ezohiko udalbatzarrean hala erabaki zuten herriko zinegotziek, gobernu taldearen (EAJ eta PSE-EE) aldeko botoekin, eta EH Bilduren kontrakoekin. Horrela, orain arte herriaren eskumen ziren Jaizkibelgo urak ere Añarberen esku gelditu dira.

PSE-EE eta EAJko zinegotziek Jaizkibelgo ura Añarbe enpresari «oparitzea» egotzi zion EH Bilduk gobernu taldeari. Erabakia hartzeko prozesu osoa «herriarren bizkarretara» egin zela salatu zuten koalizioak.



OTXE, HAZTEN ETA SENDOTZEN

OARSOALDEA

2022ko denboraldia aurkezteko ekitaldi erraldoia egin zuen otsailean Oarsoaldeko Txirindularitza Eskolak (OTXE). Bertan nabarmendu zuten, eskola eta elkarte denaren egitasmoa «hazten eta sendotzen» ari da. 2022koa zortzigarren saioa izan dute. Osasunez indartsu dagoen taldea da OTXE.

Seigarren eraso jasan du Muara elkarteak

HONDARRIBIA. Muara elkarteak joan den otsailean beste eraso bat jasan zuen, azken urteotako seigarrena litzatekeena. Kanpoan duten ikurrina lapurtu, eta beste kale batean botata topatu zutela

azaldu zuten. «Argi dugu gure aurkako eraso bat dela, baita ikurrinaren aurkako ere. Gorroto eraso izan da, eraso faxista». Udaltzaingoan salaketa jarri zuten. Behin bakarrik lortu dute Muarari eraso egin diotenak identifikatzea: «Espainiar armadako militar bat, hain zuzen ere».

OLHUI | IMFPB

Urte berriari begira, gazteak aurrera!

Pasaia
Oinarrizko Lanbide Heziketako
Udal Institutua

Bidasoa kalea, 1-3, Trintxerpe. Pasaia.
943 40 48 94 www.fpb-olh.pasaia.org olh-fpb@pasaia.net



HITZA

Abiadura murriztu nahi dute

IRUN. Artiako Lagunak taldeak urte osoan zehar Juan Thalamas Labandibar kalean ibilgailuak gehienez 30 kilometro orduko abiaduran joan daitezkeen borrokan jarraitu du. Behobiara doan errepidea da, eta handik milaka dira egunero pasatzen diren ibilgailuak, tartean kamioi asko. 2021eko bukaeran udaleko alderdi guztiek ahobatez onartu zuten eskaera hori, baina aldundiak orduko 50 kilometrora bakarrik murriztu du bertako abiadura muga. Horrekin ez daude konforme bizilagunak. Martxoan egin zuten salaketa publikoa.

Errotarriak, historia ezagutzeko

HONDARRIBIA. Aranzadi Zientzia Elkartek Jaizkibelen 25 bat errotarri harrobi topatu zituela jakinarazi zuen martxoan. Gaia garatzeko lantaldean aritu ziren Iñaki Sanz-Azkue Aranzadiko herpetologia saileko kidea, Denis Alvarez EHUko historia doktorea eta irakaslea, eta Javier Castro eta Yoseba Alonso, Aranzadiko etnografia sailekoak. Hondarribiko Udalak babesa eman zion aurkikuntzari, eta horrek herriaren historian zer eragin izan zuen ikertzeko laguntza eman zuen. Antza, errotarriak egiteko industria oso zabaldua zegoen Hondarribian, eta besteak beste, herriko XVI. mendeko gizarte eredua eta ofizioak ezagutarazteko aurkintza garrantzitsua izan zela nabarmendu zuten.

Martxoaren 8an Lezon egin zuten manifestaziokoa da irudia. Urko Etxebeste

Kaleak emakumeenak, berriz ere, Martxoaren 8an

Emakumeen Egunean mobilizazio jendetsuak egin zituzten Oarsoaldean eta Bidasoan. Irunen V. Berdintasun Plana egin zuten, baina bi bertsio ezberdin bidali zizkioten Emakunderi.

URKO ETXEBESTE OARSO BIDASOA

2022ko Martxoaren 8an berriz ere kalera atera ziren Oarsoaldeko eta Bidasoko emakumeak. Aldarrikapenak askotarikoak Emakumeen Nazioarteko Egunean, baina aurtengoan pisu nabarmena izan zuten zaintzaren gainekoak. Izan ere, zaintzaren arloan, arlo pribatuan nahiz enpresetan, emakumeak dira gehienbat besteen laguntzarako zeregina beregain hartzen dutenak. «Eta, nork zaintzen ditu zaintzaileak?», esan zuten. Lan arloan sektore oso prekarizatua dela gaitzetsi zuten.

Oarsoaldeko lau herrietan egin zituzten, goizez, manifestazioak. Arratsaldean, Errenteria-Oreretakoan eta Oiarzungoan bildu ziren. Irunen eta Hondarribian, berriz, goizez hainbat ekitaldi

izan ziren, baina arratsaldekoa izan zen jendetsuena, Hondarribia, Hendaia eta Irun lotu zituena. Denetan, «sistema patriarkalaren ankerkeria» salatu zuten.

Irun

Irunen, Emakumeen Etxea egikaritzeko urratsak egin dira 2022an zehar, prozesu parte hartzaile bidez. Gatazka, ordea, Irungo Udaleko V. Planarekin sortu da. Berdintasun Sailaren ekimenez, eta herriko eragileen parte hartzearekin, Berdintasun Plan bat egin eta Emakunderi bidali zion sailak abenduan.

Alta, Miren Etxebeste Berdintasun zinegotziak abenduan salatu zuen, Jose Antonio alkatearen aginduz beste plan bat egin eta Emakunderi bidali ziola, zeinetan *alardea* hitza edo Alardeari buruzkoak agertzen ez diren. Emakunderi plan bakarra bidaltzea eskatu du. ✕



HITZA

«Auzo berri bat» eraiki nahi dute

IRUN. Martxoaren erdialdean, San Migel-Anaka eremuak ez asko barru itxura berria izango duela jakinarazi zuen Irun-go Udalak. Hainbat hirigintza interbentziorekin, «auzo berri bat» sortuko dela jakinarazi zuen. Ekipamendu berriak eraikiko dituzte, hala nola, igerileku estaliak eta futbol zelai berri bat. Horri lotuta, etxebizitza publiko ugari egiteko asmoa dute, 1.200 inguru. Berrituko duten eremuaren azalera 137.000 metro koadrokoa da, eta Donostia kalean hasiko dituzte lanak, bost fasetan. Proiektuak Anaka eta San Miguel lotuko ditu, eta «Irun hiriaren iparraldea eraldatuko» dela esan zuen udalak.

Koldo Mitxelena mende erdira iritsi da

ERRETERIA-ORERETA. Koldo Mitxelena Institutuak 50 urte bete ditu 2022an, eta mendeurren erdi esanguratsu hori ospatzeko, hainbat ekitaldi publiko egin dituzte Erreteria-Oreretan. Horietatik esanguratsuenetakoa martxoaren 26an Niessen aretoan egin zutena izan zen: bost hamarkada horietan ikastetxearen parte izan diren pertsonen topagunea sortu zuten, tartean, hura zuzendu duten pertsonak omenduz.

Ekitaldien artean, batek bide luzea izango du: ikastetxearen eraikin bati Mariasun Landa izena jarri zioten, idazle erreteriarri aitortza egiteko. Horrek Landarengan egunero «miresmena eta maitasuna» eragingo dizkiela azaldu zuen Arantxa Igartua zuzendariak.



Olaja Gerendia

ILLUNBEK 50 URTE BETE DITU

PASAIA-TRINTXERPE

2022an Illunbe Musika Elkartearen mende erdia bete da. Ospakizunerako asko eta handiak izan dira egin dituzten ekitaldiak, gehienak musikari lotutakoak. Horietatik lehenetarikoa martxoaren bukaeran egin zuten: 500dik gora trikitilari eta pandero jotzaile elkartu ziren Pasaian, Euskal Herriko Trikitilari Egunean.

Esteban Muruetagoiena gogoan izan dute

OIARTZUN. Martxoaren 22an lau hamarkada bete ziren Esteban Muruetagoiena mediku oiartzuarra zendu zela, Guardia Zibilaren eskuetan hamar egun inkomunikatuta egon ondoren, tortura aztarna nabarmenekin. Testuinguru horretan, biktimari aitortza ekitaldi instituzionala egin zioten martxoaren 26an, Arizmendienean. Oiartzungo Udalak, lehen aldiz, herriko udalbatzan ordezkariak izan bi alderdien (EH Bildu eta EAJ) kontsentsuz, omenaldia eskaini ez ezik, hura giza eskubideen urraketen biktima bezala aitortu zuen. Udal ordezkariak gain, familiako ki-deak nahi herritarrak izan ziren.

Ekitaldi horretan izan zen, beste askoren artean, Tamara Muruetagoiena, Estebanen alaba. Haren hitzetan, hasi berri duen bidean lehen pausoa izan zen aitortza ekitaldi hori, lan aski baitago egiteke: «Instituzio guztiek nire aita biktima



Olaja Gerendia

ma gisa aitortu behar dute, haren heriotzari buruzko egia onartzeko». Familia-arentzat ez ezik, gizartearentzat pauso handizat jo zuen ekitaldia alabak.

Jexux Leonet alkateak ekitaldi hura «egia, aitortza eta erreparazioa lortzeko bidean» kokatu behar dela adierazi zuen, «Isilarazi eta ezkutatuak sufirimendu horiek ezagutzea ezinbestekoa da. Aitortu gabeko biktimen artean daude tortura jasan dutenak».

APIRILA



HITZA

Aste Santuan, bisitarien betekada

BIDASOA. Aurtengo Aste Santuan izandako datuekin eta bisitariekin pozik agertu ziren Hondarribia eta Irungo hoteletako arduradunak zein ostalariak. Hotelek %97ko okupazioa gainditu zuten, eta establezimendu turistiko gehienak beteak egon ziren. Bi hirietako turismo bulegoek 2.000 bisitaritik gora jaso zituzten, eta bisitari gehienak Espainiako Estatutik etorritakoak izan zirela adierazi zuten.

Bidaiari asko jaso ditu aireportuak

HONDARRIBIA. Apirilean hasi ziren, urrira arte, Hondarribiko aireportua Sevilla eta Malagakoarekin batzeko hegaldiak. Horiek, Kanaria Handirako hegaldiei erantsi zitzaizkien; geroago iritsi ziren Mallorca, Menorca eta London helburu zituztenak. Nola ez, Madrilera eta Bartzelonara joatekoek jarraitu dute. Horrek ekarri du 2022an 383.584 erabiltzaile izan dituela aireportuak, 2019an baino %18,7 gehiago.



HITZA



Gari Garrialde

Tokiko produkzioa, Internetera

BIDASOA. Bidasoa Kmo izeneko webgunearen berri eman zuten apirilean, BDS Koop-en ekimenez. Batez ere Bidasoko hainbat sektoretako ekoizleen produktu ekologikoak ikus eta eros daitezke bertatik, «eskualdeko barazki, ezti, ogi eta bestelako produktu zoragarriak». Hala, euren produktuen merkaturatze bideak irekitzeko eta errazteko onlineko azoka abian jartzearekin batera, bertako ekoizleen produkzioa ezagutarazteko ataria da: «Nekazariarentzako garai zailak diren arren, ez dugu amore emango, lanean jarraituko dugu».



Alaine Arantburu



HITZA

Asobalen 700.ena, eta Europara berriro

IRUN. Bidasoa eskubaloit taldeak Asobal Ligako 700. partida jokatu zuen apirilaren 30ean, etxean: 29-27 irabazi zuen Granollers-en kontra. 2021-2022ko Asobal Ligan bigarren izan zen talde irundarra, eta berriz ere Europara sailkatzeko aukera izan zuen. Azaroan, Gurutz Aginagalde izendatu zuten berriz ere kirol elkartearen presidente.

ITZULIKO LEHENA, HONDARRIBIAN

HONDARRIBIA

Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa jaso zuen Hondarribiak 2022ko apirilaren 4an, 7,5 kilometroko erlojuaren kontrakoa izan zen, eta Primoz Roglic izarrak pronostikoak bete, eta bere egin zuen. Elastiko horia ere hark jarri zuen. Ikusmin handia eragin zuen herrian Itzuliaren hasierak, kirol arlokoa eta soziala.



Urko Etxebeste

Orgasmo, sortzaile gazteen topagunea

OIARTZUN. Apirilaren 2an aurkeztu zuten Oiartzungo gazte sortzaileek Orgasmo. «Hasierako asmoa orgasmo bilakatu zen. Orgasmoa da elikatuz sortzea. Oiartzungo Gazte Sortzaileak gara eta hemen hasiko da gure orgasmoa, zuen orgasmoa, asmotik sortutako orgasmoa. Ongi etorri, beraz, Orgasmo», esan zuten jendarteratze agerraldian. Sortzaile bezala eztabaidetatik ez dutela ihes egin nahi izan adierazi zuten pertsonak eraldatzeko tresnatzat artea duten oiartzuar gazteek. Orgasmoren oinarri-oinarrian dago feminismitik landu nahi dituztela zapalkuntza eta botere harremanak.

«Testuinguru jakin batean sortzen dugu Orgasmo. Gure kasuan, Euskal Herriari eta euskaraz. Mundu globalizatu bateko hizkuntza minoritarioa izanik, hau ere, hautu politikoa da», azaldu zuten. Apirilako aurkezpenaren ondoren hainbat izan dira 2022an zehar egin dituzten ekitaldiak, betiere herriko sortzaile gazteen emanaldiak horien jomuga eta ardatz izanik.

Arramendin, bizilagunak soluzio eske

ERRETERIA-ORERETA. Arramendi pasealekuko 3, 5 eta 7 zenbakietan alokairuzko babes ofizialeko etxebizitzetan bizi diren alokatze epea apirilaren 16an iraungi zen. Kontratua Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak Jaureguizar enpresarekin sinatu zuen, eta familiak baldintza horrekin hasi ziren bertan bizitzeko. Epea bukatuta, Jaureguizar enpresak alokairuan zeudenei bizi diren etxebizitzak erosteko esan zien, bestela, handik joan behar zutela.

Bizilagun batzuk aukera izan dute etxebizitzaren erosketa kostuari aurre egiteko, baina badira familiak hori ordaindu ezin dutenak, eta beraz, kale gorrian geratzeko arriskua dutenak. Bizilagunek Jaurlaritzari eta Erreteriako Udalari babesa eskatzeaz gain, Jaureguizar enpresari 2022an zehar exijitu diote irtenbide adostu bat gara dadila.

Bide horretan, urtarrilaren 16an hiru aldean arteko bilera egitekoa zen, etxebizitza erosteko ahalmena ez duten familiak nola lagundu adosteko.



Alaine Aranburu

Lezoren gaineko ezagutza, liburuetan

LEZO. 2022an asko izan dira Lezo herria ardatz izan duten liburuen argitalpenak. Horietatik bat apirilean aurkeztu zuten: *Lezoko baserriak oroitu ditzala herriak*. Javier Salaberriak herriko baserriei ataratako argazkiak eta horien historia dira argitalpenaren ardatz.

Bestalde, urtarrilean, Iñigo Esnaola sukaldariak *Elketa* sukaldaritza liburua aurkeztu zuen; martxo hasiera, Saioa Muguruzak eta Kepa Etxebarriak *Hiku, Miku Ziriku* Lezoko Inauterietan girotutako obra zabaldu zuten; eta martxo bukaeran, Lezokuak bildumaren laugarrenaren berri eman zuten Mikel Susperregik eta Lander Zurutuzak: *Esklaboen barrakoiak*.

Luzuriaga argia ikusten hasi da

PASAIA. Antxoko Luzuriagako bulegoen eraikina herritarrentzako kultur eta aisia gune izateko urrats esanguratsuak egin dira 2022an. Apirilean, udalak eta aldundiak akordioa egin zuten, foru erakundeak bertan zuen zatia herriari emateko. Abenduan, berriz, eraikina osotasunean erosi zuen udalak, 2021ean EH Bilduk Espainiako Gobernuarekin adostutako sei milioi euroko partidari esker. Aldi berean, eraikinaren balizko erabileren gaineko parte hartze prozesua abiatu zen ekainean, antxotar guztiak asebeste ez dituenak.



www.koldomitxelenaikastetxea.com

KOLDO MITXELENA

Herri Ikastetxea

Elkarrekin euskaraz bizi!

Goiz txokoa: 07:30-09:00
Jangela - Garraioa

Fernandez de Landa z/g. Erreteria-Orereta. Tel.: 943 51 43 72 - 012905aa@hezkuntza.net

MAIATZA

Bidasoko nazismoa ildo, 'Komandantzian'

IRUN. Komandantzia. Frankismo, Nazismo eta Faxismoaren babesleku aldizkaria kaleratu zuen Kepa Ordoki Memoria Historikoa Bidasoan elkarteak. Eraikin bat zen komandantziarena, eta mugez agintaritzaren osoa jaso zuen, 1939an matxinatuek Pirinio guztien kontrola hartu arte. Horren berri zehatz eman zuen argitalpenaren bidez elkarteak.

Herritarren sartu-irtenak kontrolatzeaz gain, propaganda edota faxisten zerbitzu sekretuen mugimenduak kudeatzen zituen. Eraikina Espainia frankista eta Europaren arteko lokarria zen, elkarlanean aritzen zen III. Reich-arekin eta Italiako faxistekin espioitza lanetan. Komandantziak bi kokaleku izan zituen. Lehena, Corona Celayaren etxean, eta berehala, Jose Maria Berastegi aduana agentearen etxera lekualdatu zuten.

Aldizkariaren 500 ale kaleratu zituzten. eta bat eskuratzeko www.kepaordokimhb.eus-en eskatu behar da.



Oiartzuarrak bretoiaren alde korrika

OIARTZUN. Bretoiaren aldeko Ar Reda deg lasterketa maiatzaren 20an hasi zen Loc'hañen (Bretainia). Korrikaren antzeko filosofia duen lasterketa horretan Oiartzunek txoko bat izan zuen, hainbat oiartzuar animatu zirelako lasterketara, herriak Karaezekin duen senidetzaren harira.

Hartara, herriko hainbat eragile kilometro bana erosi zuten: Oiartzun-Karaez Senidetza Elkarteak, Oarsoaldeko AEK-k, Haurtzaro Ikastolak eta udalak.

Adierazpen bateratua, alardearen gainean

HONDARRIBIA. Hondarribiko Udala osatzen duten alderdi guztiek, hau da, EAJK, Abotsanitzek, EH Bilduk eta PSE-EEK, Jenny Pearce antropologo eta bideratzailea herrian bultzatzen ari den elkarrizketa kulturaren garrantzia defendatzen dutela berretsi zuten. Horretarako, adierazpen instituzional bateratu bat argitaratu zuten: «Garrantzitsua da udalerrian elkarbizitza sustatzea eta elkarguneak bultzatzen jarraitzea».

Udalak baieztatu zuen elkarrizketa sustatzen dabilzala Alardearen gatazkari buruz hitz egin ahal izateko. «Alardearen gaineko elkarrizketa laguntzen duten agertokiak bultzatzen jarraituko dugu». Dena den, 2022ko irailaren 8an Jaizkibel konpainiak hitz egiteko mahai bat eskatu zion Txomin Sagarzazu alkateari, eta ez zuten inolako erantzunik edota bestelako proposamenik jaso.

Udal taldeen adierazpenean, eskerrak eman eta babesa adierazi zieten horretan lanean diharduten eragile guztiei, azken urteetan egin duten ahaleginagatik. «Udala osatzen dugun alderdiak ziur gaude bide hori dela jarraitu beharrezkoa».

Aurten berriz ere Hondarribiko jaiak egingo zirela jakina zen, baina inork ez zekiela pandemia aurretik ziren bezalakoak izango ote ziren esan zuten adierazpen instituzionalaren bidez.

Hala ere, ziur daude ospakizunak egiteko urratsak egiteko erantzukizuna eta herritar guztien aniztasunaren errespetua hartu behar direla oinarritzat. «Horretarako, beharrezkoa da gure hirian benetako elkarrizketa-kultura sustatzeko apustua egiten jarraitzea».



ONTZI HISTORIKOEN PORTUA

PASAIA

Maiatzaren 26tik 29ra bitarte egin zen Pasaia Itsas Festibalaren bigarren ekitaldia. 135.000 bisitari jaso zituen, lehendabiziko edizioan baino %18 gehiago. Era berean, badiako uretan egon ziren ontzien kopuruak ere gora egin zuen: 800 tripulatu baina gehiago 168 itsasontzitan, 2018an baino %40 gehiago. Inbertitutako euro bakoitzeko halako bost bueltan jaso ziren, 4.010.000 euro denera.



'Bi arnas' dokumentala estreinatu dute

IRUN. Iratxe Sorzabal irundarrak 2001eko atxiloaldian salatutako torturak ardatz dituen *Bi arnas* dokumentala estreinatu zuten Amaia KZn. Ikus-entzunezkoan parte hartu dute Mari Nieves Diaz Sorzabalen amak; Nekane Txapategik, 1999an torturak salatu zituen asteasuarrak; Paco Etxeberria auzi medikuak; eta Serge Portelli Versaillesko Dei Auzitegiko magistratu ohiak.

Torturak Sorzabalen eta haren ama Mari Nieves Diazengan utzi duen aztarnatik abiatu, eta gaiaz hitz egitea du ardatz sormen lanak. Imanol Arzuaga *Kima* Sorzabalen lagunak eta obraren ekoizleak, emanaldien bukaerako isiltasunaz aritu zen: «Bukaeran isiltasun fuerte bat sortzen da. Jendeak beharra zuen. Orain ez badugu kontatzen ez dugu inoiz kontatuko». Donostiako Zinemaldian proiektatu zuten ere dokumentala.

Koldo Fernandez Etxaide zendu da

OIARTZUN. Koldo Fernandez Etxarte Oiartzun Kirol Elkarteko (OKE) presidentea hil zen otsailaren 18an. Horren harira, omenaldi hunkigarria egin zioten maiatzaren 29an Madalensoro pilotalekuan.

1978-79 denboraldian hasi zen Fernandez OKEko zuzendaritzan, idazkari lanetan, eta azken 11 urteetan izan zen presidentea. Gainera, Oiartzun Kirol Elkartea lehenengo mailara eramatea lortu zuen, emakumeen futbola profesionalismorako trantsizio betean zegoenean.

2022ko VII. Kirol Saria eman zioten Fernandez Etxaideri urrian, eta bere semeek jaso zuten oroigarria udaletxean egindako ekitaldian. Bi mugarri aipatu zituen Enekoitz Markosek Kirol zinegotziak saria emateko. Alde batetik, emakumeen futbola sustatzearena. Bestetik, aniztasun funtzionala duten pertsonen futbolarekin gozatzeko aukera izatea, Míndara elkartearekin egindako elkarlanarengatik.



JAIZKIBEL EREMU MILITARREK GABE NAHI DUTE

LEZO

Jaizkibelgo eremu militarra ezaba dezatela eskatzeko zazpigarren martxa egin zuten Lezotik mendiko eremu militarrean maiatzaren 29an. Oraindik ere militarren presentzia mendian oso nabarmena dela deitoratu zuten, eta horrek askotariko kalteak eragiten dituela mendian eta herritarrengan. Aldi berean, aurten indar berezia eman nahi izan diote gerren «negozioaren» kontrako mezuari.



Greba mugagabeen etxez etxeko langileak

PASAIKA. Martxoan hasi ziren Pasaiako etxez etxeko zerbitzuko langileak protestak egiten, baina udalak eta Eulen enpresak haien aldarrikapenei «erantzun egokirik» eman ez ziela iritzita, langileek «nahikoa dela» esan eta greba mugagabea hasi zuten maiatzean.

Hitzarmen propioa exijitzen zuten, ordura arte Gipuzkoako garbiketa zerbitzuen hitzarmena aplikatzen zitzaielako, «gure lanak sektore horrekin zerikusirik ez duenean». Gainera, prekarietatera kondenatuta zeudela kexu ziren: «Oarso Bidasoko lan baldintza txarrenak dituen

sektoreko langileak gara». Langileek salatu zuten 2020ean sinaturiko azken kontratuan Pasaiako Udalak zerbitzua- ren prezioa %10,18 igo zuela, garestitze horrek langileen soldatetan inongo eraginik eduki ez zuelarik. «Aitzitik», gaitzetsi zuten, «oso-osorik enpresaren [Eulen] esku geratu da».

Zortzi hilabetez protesta egin eta urte eta erdiko lanuzteak egin eta gero, hitzarmena adostu zuten, nahiz eta LAB sindikatuak eskatutako aldarrikapen guztiak ez ziren akordioan jaso. Dena den, paktua aurrera urratsa izan zela esan zuten, «bereziki feminizatu eta prekarizatu den sektorearentzat».

Sindikatuak adierazi zuen emakume pasaitarren borroka eredu garria izan dela, eta goraipatu egin zuten: «Langile hauek zoriondu nahi ditugu erakutsi duten ausardia eta kemenagatik».

Manifestazio zatatsiak, kontzentrazioak, kanpatzeak, udalbatzarretan hitzartzeak... denetarik egin zuten emakume langile horiek. «Bide gogor, astun eta luzea izan da», laburbildu zuten langileek greba bukaeran. «Baina lortu dugu!».



Etxebestek bandera eman zuen uneko argazkia. HITZA

Atzera eta aurrera urratsak, Alarde parekidearen bila

2022ko ekainaren 30a berezia izan zen. Batetik, bi urteren ondoren berriz alardea egin zelako. Bestetik, udal gobernuko ordezkari batek lehen aldiz bandera eman ziolako alardeari. Alkatea ez zen agertu.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN IRUN

Bi urteko etenaldiaren ondoren, bazegoen itxaropena 2022ko alardeak Irungo Udalaren aldetik benetako aurrerapauso bat ekarriko ote zuen. Ez zen hala izan. Jose Antonio Santano alkateak ez zion harrerarik egin Alarde Parekideari, baina tradizio duenez, bai, ordea, alarde baztertzaileari. Publikoaren desfilea hasi berrikan udaletxetik joan zen.

Dena den, badira oso garrantzitsuak izan ziren bi urrats. Bata, Miren Etxebeste udaleko Berdintasun zinegotziak Irungo bandera eman ziola Bidasoa konpainiari. Lehen aldia izan zen gobernu taldeko ordezkari batek harrera egin ziolako alarde publikoari. Bestetik, udal talde guztietako ordezkariak parte hartu zuten Alarde Parekidearen harreran, PPko-

ek izan ezik.

Alkateak adierazi zuen akordio bat lortzeko lanean aritu zela azken bi urteetan, baina ez zutela lortu azaldu zuen. «Udal talde guztien eta erakunde guztien akordioa da helburua, espero dut lortuko dugula, eta nik horren alde lan egingo dut. Pauso faltsurik ez da eman behar, eta etorriko denak egungo egoera hobetu behar du».

Haatik, atzerapausoa eman zen San Martzial ermitan egiten zen boto emate ekitaldian. Pandemiako urteetan (2020an eta 2021ean) udal ordezkari guztiek bat egiten zuten ermitan, baina aurren, Elkarrekin Podemos-IU eta EH Bilduko zinegotziak ez ziren igo. Ekitaldia orduz aldatzeko eskatua zioten alkateari, Alarde Parekidearen harrerarekin bat zetorrelako, baina atzera bota zuten eskakizuna.

Gainontzekoan, festa eta aldarrikapen egun handia izan zen. Baita omenaldiena ere, Txema Egiguren omendu zutelako aizkolariek. Alarde Parekidearen sorreran izan zen Egiguren hendaiarra, eta bere ekarpena Urdanibia plazan aintzat hartu zuten.

Horrez gain, ibilbidea osorik eta inolako arazorik gabe osatu zuten irundarrek, eta *Emakumeak alardean* leloa maiz



HITZA

Lezoko kirol langileek akordioa lortu dute

LEZO. Borrokaldi luzearen ondoren, LAB sindikatuak iragarri zuen Bekoerrota kiroldegiko eta Altxate igerilekuko langileek lan itun propioa izango dutela. Langileek BPXport enpresarekin egin zuten akordioa, Lezoko Udalaren babesarekin. Horrela, langile guztiei aplikatu zaie Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol Instalazioen hitzarmena. Hala, langileen arteko soldata eta lan baldintza arrakalarekin bukatu da. Bestalde, soldata igoera ere izan zuten.



Alaine Aramburu

Udal garbitzaileak, greba mugagabeen

HONDARRIBIA. Gerora abenduan bukatuko zen greba mugagabea hasi zuten udal eraikinak garbitzen dituzten garbitzaileek, ELA sindikatuak babestuta. Ekainera arte greba egun solteak egin zituzten, baina hil horretatik aurrera mugagabeen hasi ziren. Soldata arrakala ezabatzea galdegin zuten; 2022tik 2026ra arteko eros-ahalmena ez galtzeko bermea; enpresak hitzarmena aplikatu beharreko klausula; eta norberak nahi duenerako bi jai egun izatea.



OIARTZUARRAK, GIPUZKOAKO ONENAK

OIARTZUN

Eskuz Binakako Gipuzkoako Herriarteko txapeldun izan zen Oiartzun Donostiako Atano III pilotalekuan. 2017ko eta 2021eko finalerako arantza kentzeko gai izan ziren eta Azpeitia garaitu zuten. Oihan Etxeberria eta Mikel Leonet kadetek eskuratu zuten lehen garaipena (22-7); Oier Zabaleta eta Unax Landa jubentilek ere euren partida irabazi zuten (22-10); nagusien partidari 22-10 galdu zuen Oiartzunek, Imanol Ugaldek eta Eneko Zabaletak ezin izan zuten asko egin.



Lehen plan feminista dauka Oiartzunek

OIARTZUN. Oiartzungo Berdintasun Plana (Oiartzungo I. Plan Feminista) onartu zuten ekaineko udalbatzarrean, EH Bilduren eta EAJren babes osoarekin.

2024. urtera arteko iraupena izango du, eta «izaera transbertsala» izatea nahi dute. Izan ere, genero ikuspegia udaleko sail guztietan txertatuko dute, «pixkanaka proiektu guztietan lan egiteko modua eraldatuz». Horrez gain, eragile ezberdinekin eta mugimendu feministarekin elkarlanean egindako politika feministak martxan jartzeko hainbat egitasmo ere jaso dituzte plan horretan.

Olga Leibar Feminismo zinegotziak adierazi zuen lehenengo plan feminista hori aurrerapauso garrantzitsua izan zela. «Plana estrategikoa da, egungo egoera jasotzen du, helburuak finkatzen ditu, eta etorkizun hurbilean landu beharrezkoak zehazten ditu». Bide-orri sendo bat eskaintzen dio udalari, barne zein kanpo lanetarako, Leibarren esanetan. Udalaren jarduna eta herria eraldatzeko tresna izango dela ziur da.

LGTBI+ ekintza plana idatzi dute

ERRETERIA-ORERETA. LGTBI+ ekintza plana aurkeztu zuen Erretereriako Udalak ekainean, kolektiboaren bizi baldintzak hobetzeko xedearekin.

2019an herriko LGTBI+ pertsonen gaineko diagnostikoa aurkeztu zuen udalak, eta bertan proposatutako ekintzetatik abiatuta egin dute plan berri hori, «hetero-arauetan zentratzen ez diren politika publikoak garatzeko» konpromisoa hartu baitzuen udalak orduan, Iñaki Queralt udaleko LGTBI+ politiken zinegotziaren arabera. Kolektiboaren eskaera batetik heldu zen orduko diagnostikoa, baita plana ere.

Ekaina aurretik ukonoz ukondo aritu zen udaleko LGTBI+ mahaia eta Eihera kooperatiba LGBTI+ kolektiboaren eskaerak, ekintza edo politika zuzenetan bilakatzeko. Hilabete askoko lanaren ondoren, solasaldi horietan jasotako guztia hainbat helburu eta azpi-helburutan

laburbildu zuten, eta plana sortzeko aukera izan zuten.

Lehen helburua, LGTBI+ pertsonen ikusgarritasuna eta errekonozimendua lortzea da. Guztira zortzi lan ildo zehaztu dituzte, horiek irakurtzeko *jo oarsoaldea.hitza.eus*-era. Plan aitzindari da Euskal Herrian, eta LGTBI+ Aholku Kontseiluaren sorrera izango da.



Opa dizugu 2023 urtea
gatz eta piperrez betea

www.urkia.com





Urdanibiaren gaineko lankidetzari hasi da

IRUN. Uztailearen bukaeran Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Urdanibia jauregia bisitatu zuen Jose Antonio Santano alkatearekin batera. Bisita horren muina bi erakundeen arteko lankidetzari hasi zen, eraiki-naren inguruan.

Urdanibia multzoa jauregiak, errotak eta burdinolak osatzen dute, eta Urdanibia auzoan daude, Txingudi Ikastola eta hipikaren artean. Multzoaren jabea, egun, Eusko Jaurlaritzak da.

Lankidetzari hori baliatuko dute, bate-tik, hiru eraikinen egoera hobetzeko, eta, bestetik, Irungo herriaren esku utzi eta erabilera egokia emateko. Azken fi-nean, kultura-ondarea zaindu eta «hi-riarentzat erreferentziatzeko erakargarri publiko, kultural eta turistiko» bihur-tzea dela esan zuen Eusko Jaurlaritzak.

Zupiria eta Santanorekin batera, Mi-kel Aizpuru Kultura Ondarearen zuden-dariak eta Miguel Angel Paez Irungo Udaleko Ondarearen ordezkariak parte hartu zuten bisitan.

Festak eta erasoak, kalera berriro ere

OARSO BIDASOA. Bi urteko hutsuneak egarri zituen Oarso Bidasoko bizilagunak, eta gogoz ospatu zituzten herrieta-ko jai eta festak. Antxoko San Fermin Jaiak, Trintxerpeko Karmenak, Hondarribiko Kutxa Eguna, Errenteria-Ore-re-tako Madalenak, Donibaneko Santio-ak... Horiek denak izan ziren uztailean.

Ospakizunak, ordea, zenbaiten alderik ilunena ere atera zuen argitara. Festen testuinguruan indarkeria matxistak forma berria hartu zuen, eta ziztada salake-tak izan ziren han eta hemen. Ez horiek bakarrik, mugimendu feministek ohol-tzak hartu behar izan zituzten behin baino gehiagotan erasoak arbuizatzeko.

Goiko argazkia Pasai Antxoko San Ferminetan bertako Harremantxo talde feministak egindako gaitzespen agerral-dikoa da. Mobilizazio horren aurreko gauean eraso matxista eta homofoboak gertatu zirela salatu zuten.



Irantzu Varela jaso du Berdintasun Hiria saria

HONDARRIBIA. Uztailearen 28an iragarri zuen Jaizkibel konpainiak: Hondarribia Berdintasun Hiria Sarien VIII. edizioan Irantzu Varela kazetari eta aktibista fe-ministari emango zioten saria; eta hala izan zen. Nieves Alza, Iñigo Lamarka, Xabier Lapitz, Garbiñe Biurrun eta Maddalen Iriartek osaturiko epaima-haiak irailean egin zion aitortza, «urte guzti hauetan berdintasunaren alde egin duen lan guztia eskertu eta Jaizkibeli es-kainitako babesa» goraiatu asmoz.

Iriartek ipini zion Varelari saria or-dezkatzen duen zapia, eta ia malko arte-an jaso zuen hark. Eskerrak eman ziz-kien 25 urtez indarkeria jaso eta kaleak hartu zituztenei, eta «gorroto dituzte-nei» kritika zorrotza egin zien: «Berdin zaie Guadalupeko Ama Birjina, edo 1638an Frantziar tropen atzera egitea. Harrapatuta mantentzen gaituen miso-ginia mantentzea axola zaie».



Abuztuan hasi ziren Azoka eraikin historikoa eraisteko lanak. HITZA

Azokaren eraistea, Pasai Antxoko topoa lurperatzeko obren mugarri

Abuztuan bota zuten eraikin historikoa, eta eraistek hausnarketara bultzatu zuen antxotar bat edo beste. Ezinegon horiek lehenesteko lanean ziren aurretik ere SOS Antxokoak.

OLAIA GERENDIAIN PASAIA

Uztail erdialdean hasi ziren Antxoko topoa lurperatzeko lanen zantzuak Pasaiako barrutia hartzen. Gure Zumardian hesi urdin mardul batzuk agertu ziren, eta egun gutxi joan ziren horiek antxotarren eguneroko jarduna erdibitu zuten arte.

Hesien berri ematearekin batera, udalak bizilagunei ohartarazi zien hurrengo 21 hilabeteetan geltokia eraikitze lanak gainazalean egingo zirela. Eta hala izan da, era nabarmenean, gainera: abuztuaren 25ean Azoka historikoa eraitsi zuten, eta horrekin ohartuko zen, bat baino gehiago, datozen urteotako lanek izango duten inpaktua. Egun hartako eraisketak antxotarren artean ikus-min handia eragin zuen.

SOS Antxo Koordinakundea

SOS Antxo osatzen duten bizilagunak lehendik ziren arduratuta. 2021. urtearen bukaeran eratu zen taldea, eta ordutik ez diote etsi antxotarrentzako «ilusiozko etorkizun bat» aldarrikatzeari. Bermatuta nahi dituzte antxotarren behar eta eskubideak. Bide horretan lane-

Lau hildako Oarso-Bidasoan, lanean zirela

OARSO-BIDASOA. Abuztuaren 9an, Errenteria-Oreretako Goiko Kalean berritzen ari ziren fatxada batean lanean ari zen 49 urteko langile batek istripua izan zuen. LAB sindikatuak salatu zuenez, aldamiorearen zama-igogailuaren hutsunetik jausi izanagatik hil zen.

Hortik astebetara, abuztuaren 16an, garraiolari bat hil zen Oiartzungo Lanbarren poligonoan, lanean ari zela ondoezik sentitu ondoren. 52 urteko garraiolaria izan zen istripu ez traumatikoan zendutakoa.

Bi langileen heriotzak gaitzesteko elkarretaratzeak egin zituzten bi udalerrietan, eta LAB sindikatuak argi esan zuen horiek ez zirela «istripuz edo zorte txarrez» hil, hilero garraiolari bat hil zelako ordura arte Euskal Herriko errepide eta industrialdeetan. Errenteria-Oreretakoari dagokionez, lan prekarietateak du errua, ELAren arabera: «Produkzioa areagotu nahiean langileak segurtasunik gabe ari dira lanean».

Abuztuko heriotzei beste bi batu behar zaizkie. Urtarrilaren bukaeran Iruñen jazotako ezbeharra, esaterako: Arbesko Errotan lanean ari zela erori, eta bertan hil zen beste langile bat. Heriotza horren hurrengo egunetan hainbat mobilizazio egin zituzten herritarrek, ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek deituta. «Odolustek ez du etenik. Urtea hasi berri da, eta gutxienez, bost langilek galdu dute bizia dagoeneko Euskal Herrian. Aski da!», esan zuten.

Apirilean Hondarribiko 51 urteko arrantzale bat zendu zen, bihotzekoak jota. Urteko laugarren lan istripu hilgarria Oarso-Bidasoan.



Portuko langile batzordearen protestak

LEZO ETA PASAIA. Pasaiako Portu Agintaritzako (PPA) Langileen Batzordeak (LAB, CC.OO., ELA, eta UGT) idatzizko adierazpen publikoa egin zuen abuztu hasieran, pertsonal eskasia salatu eta horrek egungo langileengan zuzenean eragiten dituen kalteak bistaratzeko. Zuzendaritzaren kudeaketa txarra egin zuten erantzule.

Ordutik ez diote utzi «enplegu publikoaren suntsipena» gaitzesteari. Kalera irteteko inflexio puntua urriaren 6an gertatu zen, egun horretatik aurrera Ilunion sekuritate enpresa pribatuko langileak ari baitira egiten orain arte kaizainek egiten zuten lana, besteak beste, portuko sarbideak zaintzea. Erabaki hori portuetako legediaren kontra doala esan zuten batzordetik, eta horregatik, epaitzietara jotzea erabaki zuten.

Langile falta eta pribatizazioa

Pertsonal eskasia da portuko langileek mobilizatzen jarraitzeko oinarritzeko bi arazoetako bat. Zuzendaritzari gezurretan aritzea leporatu diote batzordeko kideek, langilerik ez dagoela badiote ere, Madrildik baimenduriko Lan Eskaintza Publikoaren kupoa ez baitago beteta, «kaizain lanposturako deialdiak egin zitzaizketen baina ez dituzte erabili».

Langile falta portuko alor guztietan ematen dela ziurtatu dute, eta horrek lotura zuzena dauka arazoaren beste adar nagusiarekin: kanpoko enpresen kontratazioa. Esandakoaren arabera, zerbitzu horien pribatizazioak portuaren funtzionamendua kaltetzen du, ez soilik geroz eta langile gutxiago daudelako, baita zenbait funtsezko alor desagerrarazten dituelako ere.



EUSKAL JIRA, ETA XANISTEBANAK

IRUN ETA OIARTZUN

Irungo Euskal Jiraren egun handia ospatu zen abuztuaren 6an. Egun osoan zehar jai giro euskaldunean murgildu ziren irundarrak; txalaparta, musika, dantza, haur jolasak eta bertsolariak izan zituzten. Horrekin batera, abuztuko festen aroa Oiartzungo xanistebanekin hasi zen, 2tik 6ra egin zirelako herri horretako festa nagusiak. Bi ekitaldien irudiak bidasoa.hitza.eus eta oarsoaldea.hitza.eus webgu-



Mila lagunek desfilatu zuten Jaizkibeekin. Allende Arnaiz

Hondarribiko Jai Nagusiak giro atseginean egin dira

Alardean parte hartzeko aukerarik gabe desfilatu du berriz ere Jaizkibel Konpainiak. Hala ere, normaltasunez eta herriko jendearen babes handiarekin desfilatu zuten.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI HONDARRIBIA

Hondarribiko Jai Nagusiak atseginkiro gauzatu ziren irailaren 6tik 11ra; erresetua, tolerantzia eta jai giroa izan ziren nagusi. Bi urteko geldialdiaren ondoren jolas, kontzertu, eta lehiaketak bueltan izan ziren, eta nola ez, irailaren 8ko alardea ere.

Jaizkibel Konpainiak normaltasunez eta herriko jendearen babes handiarekin desfilatu zuen 25. urteurrenean. Aurten, gainera, inoizko partaide kopuru handienarekin abiatu ziren: 1.000 lagunek parte hartu zuten. Goizeko desfilea bu-

katzerakoan alkateari elkarrizketa mahai bat osatzeko eskaera egin zion Oihana Etxebarrieta kapitainak konpainiaren ordezkari gisa, eta hilabeteko epea eman zion horretarako. Konpainiak, baina, ez zuen eskaeraren erantzunik jaso.

Jaizkibelgo kideak ez ziren izan udalaren erantzunaren zain izan ziren bakarrik. Guztion Alardea taldeak ere, jaiak igarota, elkarrizketa mahaia sor zezaten eskatu zuen uda hasieran. Horren ondoren, alardean emakumeen parte hartzea eskatzen zuen 64 emakumeren eskaera formal luatu zuten. Bi kasuetan ez zuten inolako erantzunik jaso.

Herritarren aldetik, ordea, erantzun

paregabea izan zuen taldearen sorrera irudikatu zuen argazki ikonikoa berregiteko deialdiak. Irailaren 2an mila herritar inguru bildu ziren Gernikako Arbolan, eta alardearen gatazka behin betiko bukatzea eskatu zuten.

Jaizkibel Konpainiaren eta Guztion alardearen eskakizunei muzin egin arren, jaien atarian Alardearen etorkizunaz hitz egin zuen Txomin Sagarzazu alkateak. Esan zuen «herrian sumatzen den bidearen arabera» izan behar dela udalarena, «baina horretarako oraindik pausoak eman beharrean» dardela: «Konponbidez hitz egin baino, elkarrizketan urratsak emateaz hitz egin behar da».

Zitada salaketak

Oro har jaiak giro onean gauzatu baziren ere, lau zitada kasu salatu ziren. Irailaren 10ean izan zen salaketa horien berri, eta erasoen aurkako protokoloa martxan jarri ondoren baztertu baziren ere, «ekintza horiek eraso izaten jarraitzen dutela» ziurtatu zuen EH Bilduk. Eraso sexistak salatu zituen talde bakarra izan zen. ✕

Arraun denboraldia, gazi-gozoa

OARSO-BIDASOA. Ekainean hasi eta irailko hirugarren asteburuan bukatu zen 2022ko traineruen denboraldia. Aurten ezustekoak —onak eta txarrak— nagusitu dira. Eusko Label Ligan bigarren izan zen Hondarribia. Sekulako denboraldia egin arren, Getariako estropada izango dute gogoan batek baina gehiagok. Kontxako estropadan ere sentsazio gazi-gozoarekin amaitu zuten, lehenengo jardunaldian Bermeok ateratako distantzia gainditu ezinik. Elkarteko emakumeek, berriz, denboraldi gozua bizi izan zuten. V. ETE Liga sendo irabazi zuten, 15 estropadetatik 10 irabaziz. Era berean, Euskotren ligara zuzenean igotzeko txartela eskuratu zuten, Hibaikako neskek bezala. Erreteriarrek bigarren postuan amaitu zuten ETE Liga, erregulartasunaren fruitu. Datorren urtean Euskotren Ligak izango dituen zortzi traineruen artean izango dira biak ala biak.

KAE 1 eta 2 ligetan ere sentsazio gazi-gozoak. San Pedro bikain aritu zen KAE 1en, eta titulua etxera ekarri zuen. Play-offak lehiatu ondoren, ordea, ez zuten Eusko Label Ligan aritzeko txartela eskuraterik izan. San Juan txukun aritu zen: orotara laugarren izan ziren, eta etxeko estropadan nagusitu ziren. Hibaika, aldiz, KAE2ren hasieran hirugarren izan bazen ere, play-offaren ondorengo Donostiarraren deskalifikazioarekin bigarren postura igo zen. Play-offa jokatzetik at geratu zenez, haren etorkizuna urtarreleko asanblean erabakiko da.



ATLANTIKALDIA, INDARTSU

ERRETERIA-ORERETA

Itsas kodeak lelopean indartsu heldu zen Atlantikaldia Erreteria-Oreretara. Jaialdiak bere jatorrizko esentzia berreskuratu zuen eta mundu osoko eta herriko aniztasunaren agertoki bihurtu ziren herriko plazak eta kaleak. Orotara 70 jarduera baino gehiagoko egitaraua aurkeztu zuten, eta horiek guztiak lau gune nagusietan banatu zituzten. Herritarren erantzuna handia izan zen.



2023 zoriontsua opa dizuegu!

KABALA

etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14

Erdiko kalea 16. Erreteria. kabaladenda@gmail.com



Iratxe Sorzabal, Reauko kartzelan zegoenean. HITZA

24 urte eta erdiko kondena ezarri diote Iratxe Sorzabali

Otsailean epaitu zuten, irailean Espainiaratu, eta urritik da Zaballan. Espainiako Auzitegi Nazionalen egindako epaiketan 2001ean Intxaurren jasanako torturak salatu zituen.

ANE MENDIZABAL

2015eko irailean Baigorri atxilotu zuten Iratxe Sorzabal, eta zazpi urte Reauko (Frantzia) espetxean pasa ondoren, behin zigorra beteta, Espainiako Auzitegi Nazionalak egindako euroagindu batengatik Espainiaratu zuten irailean. Urrian jakin zen Euskal Herriko espetxe batera hurbilduko zutela irundarra, eta hil horretako 27an jada Zaballako (Ara) espetxean zen.

Otsailean Madrilen epaitu eta irailaren 9an Estremerako (Madril, Espainia) kartzelan sartu zuten. Epaiketa horretan

2001ean Intxaurrendoko kuartelean bost egunez torturak jasaten egonagatik bere burua erruduntzat eman zuela jakinarazi zuen: «Ni neu eta beste batzuk erruztatu nituen; pasatzen ari nintzen infernuarekin ezin nuen beste ezer egin». Sententziaren berri otsailaren amaieran eman zuten eta 24 urte eta sei hilabeteko kondena ezarri zioten.

Espainian egoteak, baina, gerturatzea ekar zezakeela uste izan zuten haren hurbilekoek, baita gertatu ere. 11 preso Euskal Herriko espetxeetara lekualdatzea adostu zuten urrian Espainiako Gobernuaren Espetxe Zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun,

Gizarte Politika eta Justizia Departamentuak. Horien artean zegoen Sorzabal.

Lekualdatzeak

Irungo presoei dagokienez, urtarrilean Martuteneko espetxean zela bihotzekoa izan ondoren, espetxealdia etxean betetzen ari da Francisco Jose Ramada. Fermin Vila, berriz, abenduan hurbildu zuten Zuerako (Zaragoza, Espainia) presondegitik Zaballakora.

Erreterria-Oreterako Mikel Arrieta ere etxean betetzen hasi da 2022an espetxealdia, larri gaixo dagoelako. Juan Manuel Inziarte El Duesotik (Kantabria, Espainia) Martutenera lekualdatu dute, eta Eider Perez Zueratik Martutenera. Xabier Goienetxea da Euskal Herrian ez den preso oreretar bakarra, Frantziako Estatuko Lannemezanen dago (Erreterria-Oreteratik 230 kilometrora).

Lezoko presoen kasuan, Loretzo Aiestaran udan hurbildu zuten Soriako presondegitik Zaballakora. Jaione Jauregi 2020 azaroan Espainiaratu zuten Belgikatik, eta ordutik Madrill III espetxean dute preso, Lezotik 445 kilometrora. ✕



A. Mendizabal

Kasino Zaharra «kostata» zabalik

HONDARRIBIA. Bi urte, zazpi hilabete eta hamar egunen ondoren, urriaren 24an zabaldu zuten Kasino Zaharra. Pandemiagatik itxi zen, eta egoitzako juntakideak buru-belarri aritu ziren lanean egoitza ahal bezain azkar irekitzeko. «200 bilera inguru egin ditugu udalarekin Kasino Zaharra ahalik eta azkarren irekitzeko asmoz, baina ez da posible izan», azaldu zuen Mariano Oterok, herriko erretiratuen elkarteko lehendakariak. Gotzone Larrarte zinegotziak abuztuaren 30ean azaldu zuenez, zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak ziren baimeinak falta zituzten. Horrez gain, egokitzapen eta irisgarritasun lanak ere hasi berri zituzten. Egun hartan bertan urriaren 1ean zabalduko zutela jakinarazi zuen. Eguna iritsi zenean, egoitzak itxita jarraitzen zuen. «Jendea haserre dago, gehiegi atzeratzen ari da», azaldu zuen Oterok. Urriaren 24an zabaldu zuten azkenean.

Lezo-Donibane bidegorrian atzerapenak

LEZO-PASAI. Lezo-Donibane bidegorriaren hirugarren zatiaren «atzerapen berria» salatu zuen Eguzkik urrian. Hil hasieran zonaldearen lurpeko zatiaren egoera ikusteko zundaketak egin zituzten. Obrak aurki hasiko zirela ziruditen, baina aldundiak «2023ko lehen hilabeteetan» hasiko zirela iragarri zuen. Adierazpen hori «atzerapen berri baten kontatazioa» zela salatu zuen Eguzkik.



A. Aranburu

25 URTE JAIZKIBEL KONPAINIA LORATZEN

HONDARRIBIA

Urriaren 22an ospatu zuen Jaizkibelek Loratzen jaialdia, konpainiaren 25. urteurrena ospatzeko antolaturiko eguna. «Izan ginena gogoratuz, egun garena eta izango garena» aldarrikatu zuten bertan. Ibilbide historiko bat egin zuten lehenik, eta ondoren Jostaldin bazkaria. Eguna bukatzeko hasierako partaideak eta urteetako bidalgunak omendu zituzten.

Herri Olinpiadak bueltan Hondarribian

HONDARRIBIA. Urriaren 14an iragarri zuen Hondarribiko Gazte Asanbladak 2023an Hondarribian Olinpiadak berreskuratuko dituztela.

Komite Olinpiko berriak [hala deitu zuten euren taldea] herri inizatiba antolatuko duen lehenengo urtea izanik, olinpiada xumeak izango direla aurreratu zuen. Taldeen izen ematea abenduaren 23an itxi zen. Hain zuzen, talde guztiekin elkartu eta lehenengo bilera egin zuten egunean. Bilera horretan 27 talde parte hartzaileen aurkezpenak egin eta bakoitzaren eginbeharrak eta jarraibideak azaldu zituzten. Komiteak, argi utzi zuen hasieratik kuadrillen atxikimendua bereziki garrantzitsua zela beraien zat. Hortaz, bigarren bilera baino lehen bi proba proposatu behar zituzten: bat fisikoa eta ez fisikoa bestea. 2023ko urtarrilaren 3an, jokoan aukeraketa definitiboak egin (bozka bidez) eta talde bakoitzari baten antolaketa esleitu zioten.

Orereta Ikastolak hartu du Kilometroen lekukoa

ERRETERIA-ORERETA. Uzturpe ikastolaren eskutik, Ibarra (Gipuzkoa) jaso zuen Orereta Ikastolak 2023ko Kilometroak antolatzeko lekukoa. Hirugarrenez antolatuko du Ikastolak festa handia, 2023an, gainera, ikastolaren 60. urteurrenarekin bat eginez. Itziar Navarro lehendakariak, Anartz Muxika zuzendari nagusiak, eta Xune eta Ani Zapirain nahiz Jare Antzizar ikasleek ikastolaren izenean jaso zuten lekukoa. Navarrok esan zuenez «gogoz eta ilusioz» hartuko du ikastolak egitasmoa antolatzeko ardua.

Lekukoa jaso ondoren, azaroaren 4an egin zuten Kilometroen aurkezpen ofiziala, Lekuona Fabrikari. *Erriola* izan zen Orereta Ikastolak aurtengo jaialdirako aukeratu zuen leloa, eta logoa ere aurkeztu zuten: «Errioa herriaren erdigunetik pasatzen delako, bizimoduaren erdigunean egon delako eta erdiguneak sortu dituelako. Erriotik, herri».



Azaroaren 25ean mugimendu feministak plazak hartu zituen. Irudian, Oiartzun. E. Gartzia

Indarkeria matxistak gora egin du urteko lehen hamar hilabeteetan

Azaroaren 25ean, mugimendu feminista kalera atera eta indarkeria matxistari aurre egin zion. Kasuak gora doaz, eta hil horretan bertan bi gizon atxilotu zituzten erasoengatik.

ERIK GARTZIA EGAÑA

Azaroaren 25ean, bi eskualdeetako mugimendu feministako eragileak kalera atera ziren. Indarkeria matxistaren kontrako elkarretaratzeak egin zituzten plaza nagusi guztietan. Biktima izatearekin nazkatuta daudela adierazi zuten.

Oarsoaldeko lau herrietan, nahiz Iru-

nen eta Hondarribian, %3,57 hazi dira emakumeen kontrako erasoak 2022ko urtarriletik irailera, 2021ko datuekin alderatzen badira. Igoerarik handiena familia barruan izandako indarkeria matxista kasuena izan da, %16,88ko gorakadarekin; bikoteek edo bikote izandakoek emakumeei egindako erasoak ere handitu dira, %3,27an. Askatasun sexualaren kontrakoak, berriz, %20an jaitsi dira. 2022an, kasuak 406 izan dira orotara 2022ko lehen bederatzita hilabeteetan; 2021ean, 392.

Errenteria-Oreteretan ez zen indarkeria matxistaren aurkako mobilizazio bakarra izan. Izan ere, azaroaren 7an Beraun auzoan sexu eraso bat izan zen. Horrez gain, azaroaren 27an 35 urteko beste gizon bat sexu eraso egiten harriaratu zuen Ertzaintzak, kalean, eta



‘Etxetxo’, Hibaikaren batel berria

ERRETERIA-ORERETA/LEZO. Kirolak eta memoria historikoaren aldeko lan-ketak elkarrekin paladak emango dituzte datorren denboralditik aurrera. Izan ere, Hibaika Arraun Elkartearen bateletako bat *Etxetxo* izenarekin bataiatu zuten.

Lezoko Etxetxo baserrian, tropa faxisten aldeko komando batek Maria Oiarzabal eta haren seme Xebastian, Enrike eta Txomin hil zituen, bizkarretik tiroka, azalpenik eman gabe. 1936ko uztailaren 27an izan zen hura.

Baserria Errenteria-Oreretako saihebidia egiteko eraitsi bazuten ere, haren memoriak itsasoko urak gurutzatuko ditu. Izan ere, Pedro Usabiaga baserri hartatik geratzen zen senide zaharrena Hibaikaren zale amorratua zen, eta ezer jakin gabe, familiaren eskariz, klubak onartu zuen batel bati baserriaren izena jartzea. Krimen hura ez da argitu, inork ez du ordaindu, baina hildakoen memoria betikotu egingo da paladak palada.

Mingainak dantzan, eta belarriak prest

OARSO BIDASOA. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean, Euskaraldia ariketa soziala egin zuten hirugarren aldiz. Papparean jarritako txapak adierazten zuen bakoitzaren jarrera zein izango zen: Ahobizi edo Belarriprest.

Euskaraz aritzeko eta aditzeko prestutasuna, baina, ez zen esparru edo elkarriketa pribatuetan bakarrik islatu. Herri guztietan ekitaldi ugari egin zituzten, euskararen erabilera sustatu eta horri buruz kontzientzia hartzeko.



O. Gerendlain

Etkez etxeko langileek hitzarmena dute

PASAIA. Martxoan atera ziren estreina-koz kalera Pasaia-ko Etkez Etxeko Zerbitzuko Langileak, eta azaro arte aritu ziren borrokan. Maiatzaren bukaeran greba mugagabeari ekin zioten hitzarmen duin eta propioa aldarrikatzeko, eta azaroan bukatu zen zortzi hilabete luze iraun zituen borrokaldia, eta urte erdiko lanuztea; badute hitzarmena.

Era guztietako mobilizazio ugari egin zituzten emakume langileek hilabete horietan. «Bide gogorra» izan dena azaroaren 18an bukatu zen, sinatzearekin.



E. G.

Hondakin garbiketak, hainbat txokotan

OARSOALDEA. Hondakinak jasotzearekiko kontzientzia askok gainditu duten ikasgaia da. Horregatik, Bazterrak Txukuntzen taldea sortu zen Oiartzunen, eta hilero auzo bat garbitu dute auzolanean. Azarokoa izan zen azkeneko saioa, Arraguan egin zutena. Hilabete horretan ere bai ibai eta erreka bazterrak garbitu zituzten udalek sustatuta. Lezoko Zubitxo erreka eta Errenteria-Oreretako Oiartzunen kasua izan zen.



M. DelVal

KORRIKALARI UHOLDEA DONOSTIARA BIDEAN

OARSO-BIDASOA

Azaroko bigarren igandean egin zuten Behobia-Donostia lasterketaren 57. ekitaldia. 24.200 lagunek bukatu zuten lasterketa. Ohi bezala, errepideak zein bazterrak jendez gainezka egon ziren. Oarsoaldeko 424 korrikalari iritsi ziren Donostiako Bulebarrera, eta Irun eta Hondarribiko 466.

Gurutz Aginagalde, lau urtez gehiago

IRUN. Gurutz Aginagalde Akizuren hautagaitza aukeratu zuten Bidasoa Irun eskubaloi klubeko bazkideek, eta datozen lau urteetan presidente izaten jarraituko du atezain izan zen, eta ondo-

ren lehendakari postua eskuratu zutenak.

Azaroaren erdialdean egindako bozketan, 55 bazkidek berretsi zuten Aginagalderen proiektua, baina ez zen beste hautagaitzarik aurkeztu. Horrenbestez, Aginagalderen taldeak jarraituko du kluba gidatzen.

Unai Emeryri, hiriko urrezko intsignia

HONDARRIBIA. Azaroaren 19an, Hondarribiko Udalak urrezko intsignia ezarri zion Unai Emery Etxegoien futbol entrenatzaile hondarribiarrari. Berez irailean egitekoak ziren ekitaldia, baina konpromisoak zirela eta, ezin izan zuten orduan egin. Azaroaren 19an Ingalaterratik etortzeko aukera izan zuen, eta ekitaldi hunkigarria izan zen, *Txoriak* txori abesten bukatu zutena.

Mattin Etxebestek, aureskuan txapela

OIARTZUN. Euskal Herriko IV. Auresku Txapelketa Nagusia Hondarribian lehiatu zen, eta txapela Oiartzunera joan zen, Mattin Etxebeste izan baitzen taula gainean onena. Besteak beste, Tomas Muruaren garaikurra eskuratu zuten dantzari oiartzuarrak, eta herriko udaletxean utzi du, datorren urtera arte. Aurreko hiru urteetan Katerin Artola herrikidea izan zen txapelduna.



Alaia Martin, Iruñeko finalean. Alberto Elozegi / BERTSOZALE.EUS

Oiartzuar bat bertso finalean, ia sei hamarkadaren ondoren

Alaia Martin Etxebeste Bertsolaritza Txapelketa Nagusiko finalera iritsi zen, aurreko saio guztietan gailenduz, eta finalerdietan puntu gehien lortuz. Finalean bosgarren postua lortu zuen.

ERIK GARTZIA EGAÑA OIARTZUN

Pandemiak urte betez atzeratu zuen, baina udararen ondoren bueltatu zen Bertsolaritza Txapelketa Nagusia. Oarsoaldeko bertsolari bakarrak parte hartu zuen, eta lehenengo faseetan bereziki nabarmendu zen: Alaia Martin Etxebeste. Bertsolari oiartzuarrak Getxoko Muxikeberri aretoan hasi zuen bere ibilbidea, irailaren 23an, txapelketan zituen intentzio deklarazioarekin. Saio hura irabazi zuen, eta finalerdietarako txartela lortu zuen zuzenean.

Finalerdiak joaneko eta itzuliko saioetan banatu ziren, eta Elizondon jokatu zen finalerdietako lehenengo saioan aritu zen, urriaren 22an. Baztan bailarako hiriburuan ere bertsolari onena izan zen oiartzuarra. 729,5 puntu bildu zituen

bertan. Modu horretan, finalerdietako itzuliko fasean aritzeko txartela lortu zuen Nafarroa Garaiko herrian.

Hurrengo zita Amurrión izan zen, azaroaren 19an. Zirt edo zarteko bertso saioa izan zen, baina oiartzuarra ez zen kikildu. Aretoko «goxotasunaren» eta «esangura» zuten gaien olatua hartuta, berriro irabazi zuen, baina finalean izango zen ala ez jakiteko aste bat edo bi itxaron behar izan zituen.

Hurrengo saioa bukatuta jakin zuen Nafarroa Arenako oholtzara igoko zela, Maialen Lujanbiorekin batera. Honakak izan ziren gainontzeko finalistak: Aitor Mendiluze, Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Joanes Illarregi, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina. Abenduaren 18ko finalaren aurretik, Martinek esan zuen «gustura» aritu zela aurreko hiru saioetan, baina ibilbide bikaina egina ere «ez guztiz pozik» eta beti dagoela zertan hobetu adierazi zuen. 1965ean iritsi zen azkeneko aldiz oiartzuar bat finalera: Juanito Mitxelena.

Finalean gertuko babesa jaso zuen, eta txapelak lehenengo lepotik burua izan zuen: Lujanbiok hirugarren aldiz jantzi zuen. Epaileen puntuak bosgarren postuan utzi zuten oiartzuarra. Badu helburua: akatsak gainditu, eta 2026kora begira jarri.



Anbulatorioaren aldeko borrokan, garaipena

ERRETERIA-ORERETA. Udaran ohikoa izan ohi da ambulatioek beraien ordutegia murriztea. Beraunen, hala ere, ohiko ordutegia ez zen oporraldien ondoren bueltatu. Hala jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak urrian. Horregatik, mobilizazioak hasi zituzten zerbitzu ematen dien eremuko auzotarrak. Erreteriako udal gobernua Gotzone Sagardui sailburuarekin bildu zen azaro bukaeran.

Herritarrek auzoko kaleak hartu zituzten, eta albiste ona urtea bukatzearekin batera iritsi zen: aurreko ordutegia berreskuratuko zela. Iztieta-ko osasun-etxean jarri dute borroka-aren fokua, duen «gainkarga» arintzeko.



Xixilio Maritxalar eta Zuberoa, sarituta

OARSOALDEA. Oarsoarrak Euskara Saria banatu zituzten abenduaren 2an. Xixilio Maritxalarrek jaso zuen norbanakoen saria, urte luzez egindako lana aitortzeko. Ixtear zen Zuberoa jatetxerak, berriz, zerbitzuan euskara oinarri izatea txalotu nahi izan zuen sariak.



HITZA

San Telmo gaztelua, hondarribiarrena

HONDARRIBIA. Apirilaren 14an egin zen osoko bilkuran aho batez onartu eta 3,5 milioi eurotan erosi zuen Hondarribiko Udalak San Telmo gaztelua, eta uztailearen 26an ofizialdu zen. Ordutik, eta azaro bukaera arte, prestaketa, txukuntze eta segurtasun lanak egiten aritu dira, herritarrek San Telmo gaztelua bertatik bertara ezagutu dezaten. Abenduko hirugarren astean zabaldu zituzten gazteluaren ateak. Oraingoz hondarribiarrek bakarrik izango dute beraien hiriko ondarea ezagutzeko aukera.

Piraten gaztelua edo Higer gaztelua bezala ere ezagutzen den monumentua 1598an Felipe II.aren erregealdi amaieran eraiki zen. 497 metro koadroko azalera du eta hiru eraikinez osatuta dago: dorrea, tropa-kuartela eta ofizialen pabiloia.

Gaztelua XVI. mendekoa den arren, urteetan zehar —batez ere XVIII. eta XX. mendeetan— aldaketak jasan ditu. Izan ere, hainbat pertsona bizi izan dira bertan.



Zuntz optikoa Pasaia osora hedatu da

PASAIA. Donibaneko goiko aldeko kaleetan jartzearekin batera itxi da zuntz optikoa Pasaia hiriguneetan hedatzeko lana. Movistarrek egin ditu lanak, baina edozein konpainia kontrata daiteke.

San Migel, alarde parekideko konpainia

IRUN. Abuztuan San Migel auzoko bizi-lagun talde batek, auzo horretako konpainian desfilatu zuten pertsonekin batera, konpainia berri bat sortzeko lan egitea erabaki zuten. Konpainiak plaza-ratutako helburuak argiak izan ziren: ekainaren 30ean desfilatzea eta pertsona guztiak baldintza berdinetan parte hartzea. Proposamenak «harrera bikaina» izan zuela eta, ofizialki eskatu zuten alarde parekidean sartzea, eskaera hori abenduan onartuz.



TXERRIA, AZOKAK, TXISTORRA

ORARSO BIDASOA

2022ko santomasak normaltasunarenak izan dira. Errenteria-Oreretako, Irungo eta Hondarribiko feriak abenduaren 21ean izan ziren; beste herrietan, aurreko asteburuan. Guztietan giro bikaina izan zen.

iragarki laburrak .eus

Gure aukerak, zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZI!

“Berriz ere esnatzen”



2023. urtea irribarre batekin hasi

**Beste urte bat elkarrekin
aurrera goaz.**

**Ez dakigu bizitzak zein bide
emango digun, baina eguneroko
gauza txikiez gozaten,
bide egokia hartzea
errazagoa izango da.**

Eskerrik asko HITZAkide

Zuri esker, zailtasun guztiei
aurre eginez zure eta gure
proiektua aurrera doa.

Oarsoaldea eta Bidasoan
euskarazko informazioaren
giltza eta bihotza zuek zarete.

- Astekaria, Gipuzkoako HITZA eta produktu bereziak jaso.
- Sariak eta zozketa eskusiboak.
- HITZAkideen Txokoa.
- Eskaintza sarea eta deskontuak Euskal Herriko komertzio, zerbitzu eta aisialdian.
- HITZAkideen newsletterra jasotzea.

